Lurreko lehen gailurrean, zeina 1992an Rio de Janeiron (Brasil) egin baitzen, ondoko gaien modukoak landu ziren: klima-aldaketa, baso-soiltzea eta animalien eta landareen ehunka espezieren suntsipena, baliabide naturalak bereizi gabe ustiatzeagatik. Herrialde txiroenek garatzeko duten eskubidea ere eztabaidatu zen, horrek euren baliabide naturalak eta planetaren etorkizuna arriskuan jarri gabe. Rioko gailurra konpromiso ugari batekin eta parte hartu zuten herrialde guztiek berretsitako ekintza plan batekin bukatu zen; bertan, herrialde bakoitzak aplikatu eta arautu beharreko neurri zehatzak adierazten ziren, etorkizuneko belaunaldiak planetaz gozatzeko aukera izatea bermatuko zuketena baldintza ezin hobekak lortzeko.

Pasa den irailean, Johannesburgori egokitu zitzaion 2002ko Lurreko Gailurra ospatzea. Eginiko aurrerakuntzen kontuak eman, emaitzak ebaluatu eta erronka berriak planteatzeko unea zen. Horretarako bildu ziren Hego Afrikako hiriburuan 50.000 pertsona baino gehiago: 180 herrialdeetako eta nazioarteko erakundeetako delegatuen eta gizarte eta ekonomi elkartearen eta gobernuaren kanpoko erakundeetako ordezkarien artean.

## Hamar urte geroago... zer?

**Urte hauetan guztietan zehar eskasak izan dira** Rioko konpromisoak abian jartzeko egindako saiokak. Ingurumena kaltetu gabeko garapenak, epe laburrean, berehalako mozkinik ematen ez duten inbertsio handiak egitea darama berekin. Hori dela eta, ez da bideragarria, munduko ekonomi sistemaren arauak begira. Horregatik, Hegoaldeko herrialdeak Iparraldeko herrialdeen konpromisoei dagokionez eszeptikoak dira askotan, garapen jasangarriaz hitz egiten dutenean eta, gainera, gutxien garatutako herrialdeei ingurumena zaintzeko neurriak aplikatzea eskatzen dietenean. Izan ere, Iparraldeko herrialdeak dira energia eta baliabide natural gehien kontsumitzen dituztenak; horregatik, herrialde txiroek ingurumena zaintzeko suposatzen dituen kostuak eta erantzukizunak konpartitzeko eskatzen diete.

Interes hauek guztiak jokoan izanda, zaila zen Johannesburgo, agendan, garapen jasangarri zuzen baten aldeko benetako aurrerakuntza suposatzea. Buruzagi politiko askok gailurreko arrakastak azpimarratu dituzten arren, bertan egon diren erakunde eta aktibista gehienak kexatu dira, bilera denboragalerak garesti bat baino ez delako izan —gailurraren kostua 60 milioi euro ingurukoa izan dela uste da—.

**Zergatik?** Hona hemen arrazoiatariko batzuk: bilera bakarrean eztabaidatzeko gai ugari zeudela, une hauetan dauden nazioarteko finantza-zailtasunak eta, batez ere, konpromiso eta egutegi berriak aurrera ez eramateko hainbat herrialdek (Estatu Batuak, Japonia, Australia eta Kanada, besteak beste) egindako ahaleginak, Europar Batasunaren ekimen eta buruzagitzaren gabezia ahaztu gabe. Orokorrean, Johannesburgon lortutako akordioek enpresa multinazional handiekin, batez ere baliabide

naturalak ustiatzen dihardutenekin, bat datozen herrialde gutxi batzuen interesak islatzen dituzte. Egia da puntu zehatzei buruzko akordioak egon zirela, hala nola nekazaritzan osasunerako arriskutsuak diren ekoizkin kimikoen erabilera mugatzea edo arriskuan dauden espezieen arrantzarekin amaitzeko erabakia, zeina Estatu Batuen zuzenketa baten ondorioz gutxietsi baitzen. Baina garapenaren aldeko laguntzari edo kanpo zorra barkatzeari dagokionez, ez dirudi herrialde aberatsek aurrera egingo dutenik nazioarteko azken biltzarretako konpromisoei begira. Beste gai aipagarri batzuetan, hala nola ingurumenari buruzko akordio multilateralak, nekazarien diru-laguntzen deusezteia edo energia berriztagarri berrien sustatzea, negoziazioak asmoen aitormen hutsean baino ez ziren geratu, neurri edo estrategia zehatzak planteatu gabe. Gailurreko emaitzek ez diote jendearen eta Hegoaldeko herrialde gehienek iritziari erantzuten, hauek benetako konpromisoak nahi zituztelarik. Beste topaketa bat baino ez da izan, galdutako beste aukera bat, eta planeta osasuntsu, bidezko eta guztientzako eskuragarriago baten aldeko borrokan atzerapen bat.

## GAILURREKO akordioak

### Ura

Gobernuek erabaki dute mundu osoan edateko urik ez duten pertsonen kopurua (1.100 milioi), eta baita saneamendu-sistematik ez dutenena (2.200 milioi) ere, erdira jaistea 2015. urterako. Estatu Batuek akordio hau onartu zuten, herri alde industrializatuetan energia berriztagarriak erabiltzeko epe finkorik ez jartzearen truke.

Hau izan zen, agian, gailurreko arrakasta nagusia. Hala ere, sektorea menperatzen duten enpresa pribatu handien esku utzi daiteke.

### Energia

Gailurrean herrialde txiroei energia jasangarri eta eskuragarriak erabiltzeko erraztasunak emateko konpromisoa hartu zen arren, Iparraldeko herrialdeen gobernuek eguzki edo haize energia bezalako energia berriztagarrien erabilera sustatzeko egutegi eta mekanismo praktikokoak ezartzeko ezezkia eman zuten. Puntu honen kontra agertu ziren Estatu Batuak eta garapen bidean dauden eta petrolioak ekoizten duten beste hainbat herrialde, petrolio-multinazionalen laguntzarekin bat. Hau izan da gailurreko porrotetariko bat, zeinak erakusten digun epe laburreko nazio-interesak planeta mantentzearen gainetik daudela.

### Berotze orokorra

Errusiak eta Kanadak, azkenean, Kyotoko protokoloa, berotegi-efektua sortzen duten gasen igorpenaren murrizteari dagokionez, berretsiko zutela esatea izan zen honi buruzko aurrerakuntza bakarra. Atxikimendu hauekin bat, protokoloa indarrean jar zitekeen, Estatu Batuen laguntzarik ez izan arren.

# Gailurreko esaldiak



**“Rion ezarritako helburuak lortzeko aurrerabidea espero baino motelagoa izan da, eta zenbait alderditan baldintzak orain 10 urtekoak baino okerragoak dira”**

(KOFI ANNAN, NBEko IDAZKARI NAGUSIA)

Planeta garbi eta bidezkoago baten alde lan egiteko borondateak enpresa multinazional handien eta Iparraldeko gobernuen interes ekonomikoen aurka dago, ekoizpen-jarduketaren baten kostuak kalkulatzeko orduan ia inoiz kontuan hartzen ez diren inbertsio altuak suposatzen dituelako. Komunikatu batean, GKEek antolatutako foro paraleloak ondoko epaia eman zuen: “Herrialde aberatsek nazioarteko korporazio boteretsuen interesak ordezkatzeko dituzten taldeek esandakoa egiten dute”. Hitzak baino haratago, Iparraldeko herrialde gehienek duela 10 urte beraiek onartu zituzten estrategia eta politikak ukatzen dituzte.

**“Europar Batasunak buruzagitzaren bere gain hartu eta Johannesburgon munduak esanetatik ekintzetara salto egitea bermatu behar du. Gure ezinegona munduari jakinarazi behar diogu”**

(MARGOT WALSTRÖM, EUROPAKO INGURUMEN KOMISARITZA).

Europar Batasunak ingurumen politika orokorretan bere nazioarteko buruzagitzaren mantendu nahi izan zuen arren, asmo onak hitz hutsetan geratu ziren, batez ere Estatu Batuak, Kanada, Australia edo Japonia bezalako herrien sendotasunaren aurka zegoenean, zeintzuek gailurreko gai nagusiei buruzko proposamenak ez baitzituzten zehaztu nahi izan. Espainiaren kasuan, GKEek Gobernuari pasibotasuna eta gailurrekiko interes falta leporatu diote, eta horrekin bat, Garapen Jasangarriko Estrategia Espainiarra oraindik ere onetsi gabe dagoela gogorarazi diote.

**“Ekosistema hauen (eta gu ekosistema haietan eta haietaz bizi gara) osasuna ziurtatu ezean, ezingo da sekula bermatu munduko populazio zati handi batentzako bizi-maila onargarri bat”.**

(CLAUDE MARTIN, NAZIOARTEKO WWFko ZUZENDARI NAGUSIA).

Oso planeta emankor eta aberats batean bizi gara, baina bere hondoa eta baliabideak agortzen dira. Argi dago oinarritzko baliabideak

erabiltzeko eta txiroenen osasun baldintzak eta bizimoduak hobetzeko, bizi garen ekosistemak euren osotasunean mantendu behar ditugula. Lurrean bizi garen sei milioi pertsonon elikadura bermatzeaz gain, oraindik jaio ez direnena ere hartu behar dugu kontuan.

**“Askoren txirotasunean eta gutxi batzuen oparotasunean, txirotasunezko itsaso baten erdian, oinarritutako mundu-mailako gizarte bat ez da jasangarria”.**

(THABO MBEKI, HEGOAFRIKAKO PRESIDENTEA).

Hegoaldeko herrialde askoren jarrera aldarrikatzailea Iparraldeko herrialdeen axolagabekeriaren oso desberdina da. Iparraldeko herrialdeek Hegoaldeko herrialdeei baliabide gehienak lapurtu dizkiete euren gizarteak aberasteko. Horregatik, orain baliabide naturalen banaketa bidezkoagoa eta munduko populazio guztiak oinarritzko zerbitzuak erabiltzea bermatzen duen garapen jasangarria ezartzeko baldintza orokorrak eskatzen dituzte.

## Baliabide naturalak eta biodibertsitatea


Jadanik izenpetutako akordio batek, 2010. urtean, biodibertsitatearen egungo galera-tasaren murrizketa esanguratsua lortzea proposatzen du. Arrantzarari dagokionez, 2015ean, murriztutako arrantza-erreserbak berreskuratzeko konpromisoa lortu da. Azkenik, 2012an, babestutako itsas guneen sare bat sortzeko konpromisoa sinatu da. Gailurrean lorturiko arrakasta urrien artean ditugu arrantzan lortutako konpromiso hauek.

## Merkataritza

Akordioek herrialde aberatsen borondatea jasotzen dute. Baina, Hegoaldeko herrialdeek sortzen dituzten nekazal ekoizkinak nazioarteko merkatuetan erraztasun handiagoz sartzeari dagokionez, errealitatean ez dago ez inongo konpromisorik merkatuen irekitzeari buruz ez Hegoaldeko ekoizkinekin desleialki lehiatzen diren ekoizkinak esportatzeko nekazal diru-laguntzak deusezteari buruz, ezta Hegoaldeko milioika ekoizle eta produkzio-etxeren iraupenari eragiten dien nekazaritza-lehengaien krisiarekin amaitzeko inolako neurririk ere. Herrialde aberatsek txiroei presionatzen diete euren merkatuak irekitzeko, herrialde aberatsek beren ekonomiak muga-zerga eta diru-laguntzen bidez babesten dituzten bitartean.

# Zer da garapen jasangarria?

## Zer da garapen jasangarria?




Garapen jasangarriaren kontzeptua Garapen eta Ingurumenari buruzko Munduko Batzordeak honako hitzekin definitu zuen, 1987an: "orainean ditugun premien konponbidea bilatzen duen garapena, etorkizuneko belaunaldiari euren beharrei irtenbideak emateko baliabideak arriskuan jarri gabe". Hau da, aurrerakuntzaren eta berdintasun ekonomiko eta sozialaren arteko bateratzea, munduko baliabide naturalen mugen barne. Garapen honetarako funtsezko hiru oinarri ezarri behar dira:

- Arretaz ibiltzea. Horrek, ingurumenean konpondu ezinezko kaltea sortu baino lehen, baliabideen kontrolak gabeko erabilera arautzen duten neurri prebentiboak izatea berekin darama.
- Egungo eta etorkizuneko belaunaldien arteko elkartasuna eta baita munduko herri guztien artean ere.
- Munduko gizarte eragileen partehartzea erabakiak hartzeko mekanismoetan eta politiken segimenduan.

# Txirotasun jasangaitza

## Txirotasun jasangaitza




Aurreko hamarkadan zehar garapenari zuzendutako ahalegin nagusiak ekonomiaren globalizazioan kokatu dira, espezifikoki, merkataritzaren liberalizazioan. Honek oraindik handiagoa egin du aberats eta txiroen arteko aldea, eta gizartean eta ekonomian dagoen desoreka jasangaitza da Hegoaldeko herrialdeentzako. Txirotasunari buruzko nazioarteko inongo batzarrik ez dagoenez, Hegoaldeko gobernu askok Johannesburgoko gailurra erabili dute txirotasunaren murrizketa mundu-mailako helburu gisa aldarrikatzeko.

Aberatsen eta txiroen arteko aldea txikitzen lagunduko zuen estrategietariko bat Hegoaldeko ekoizkinak Iparraldeko merkatuetan libreki sartzea izango litzateke, hala nola

esportaziorako diru-laguntzak eta dumping-aren praktikak deusezteka, herrialde aberatsek erabiltzen duten lehia desleiala. Hots, muga-zergarik eta diru-laguntzarik ez egotea (2000. urtean Iparraldeko ekoizpenari emandako diru-laguntzak 400.000 milioi eurotik gorakoak izan ziren, garapenari zuzendutako laguntzaren seikoitza). Tira-birak eragozteko, Estatu Batuetako eta Europar Batasuneko bozeramaleek gailurra puntu horiek eztabaidatzeko lekua ez zela argudiatu zuten. Orduan, galdera honakoa da: noiz eta non izango da unea planetaren gizarte, ekonomi eta ingurumenaren desoreken murrizketaren alde lan egiteko?

# Proposamen alternatiboak

## Proposamen alternatiboak



Iparraldeko herrialdeetako gobernuen konpromiso zehatzen gabeziaren aurrean, Johannesburgoko gailurrean gobernuak kanpoko ehunka erakundek hartu dute parte, zeintzuek benetako garapen jasangarria eskatzen baitzuten, egun jende ugari eragiten dion txirotasunarekin amaitzeko eta egun dagoen ingurumena deusezteko joera eteteko. Eco-Equity nazioarteko koalizioak, GKE ekologistek eta garapenaren aldekoek osatuta (Greenpeace, Oxfam Internacional, WWF/ADENA eta beste batzuk) gobernatzaileei berehala ekitea eskatzen duten alorrak planteatu zizkien.

- Energia berriztagarrien iturri berrien aldeko apustua —2010erako munduko oinarritzko energiaren kontsumoaren % 10 ekoiztu beharko zuketena— eta egun oinarritzko energia zerbitzuak erabiltzeko aukerarik ez duten 2.000 milioi pertsonen zerbitzu horiek erabili ahal izateko programa baten ezarpena.

- Edateko uraren erreserbak behar bezala gordetzeko eta guztion eskura egoteko zuzenduriko uraren kudeaketa politikak hobetzeko estrategia zenbakarriak, eta, gainera, saneamendu plan eta tekniken erabilera bermatzea.
- Garapenari gehiago laguntzea, garatutako herrialdeen BPGaren % 0,7aren nazioarteko konpromisora iristetik urrun egoteaz gain, azken hamarkadan % 0,22 eskas batera jaitsi delako.
- Kanpo zorra barkatzeko bidean aurrera egitea, osasunean eta hezkuntzan inbertitzeko baliabideak liberatzeko helburuaz.
- Merkataritza politikak hobetzea, garapen bidean dauden herrialdeek eta mundu osoko ekoizkin txikiak merkatuak eskaintzen dizkien aukerak aprobeatzea ditzaten.
- Enpresen jarduketa arautzen duten eta enpresei gizarte eta ingurumen erantzukizunak eskatzen dizkieten arau lotesleak ezartzea.

# Gida didaktikoa

## Gida didaktikoa

Atxikitako proposamen didaktikoa bigarren hezkuntzako ikasleei zuzentzen zaie. Jarduerak gizarterako, etikarako, tutorizetarako, e.a. baliagarri izan daitezke, hala nola honekiko interesa duen edozein irakaslerentzako. Proposamen honen helburua Johannesburgoko Gailurrean landutako gaietariko batzuk eta hainbat ondorio ezagutzea eta kritikoki aztertzea da.

AUTORA: SIBILA VIGNA

### 1. jarduera:

#### Lurreko Gailurraren aurkezpena

**Helburua:** Johannesburgoko gaiak eta helburuak aurkeztu; planetaren arazoei buruzko alde aurretiko ideiak identifikatu; garapen jasangarriaren kontzeptua aztertu.

**Orientazioak:** argazkiaren behaketak Lurreko Gailurraren gaia aurkeztea eta gaiari buruzko alde aurretiko ezagutzak ikertzea ahalbidetzen digu: bileraren kokapen geografikoa, e.a. (2) galderan, delegazio ofizialen partehartzea eta gailurreko helburu nagusia aipatzeaz gain, garrantzitsua litzateke bileran egon ziren gizarte-mugimendu ezberdinak azpimarratzea: GKEak, kolektiboak, e.a. (3 eta 4) jardueretan planetaren arazoei buruzko alde aurretiko ideiak elkarren artean komentatzeko gogoeta erraztea lortu nahi dugu.

### 1. jarduera:

#### Lurra berehalako irtenbideak behar

**Helburua:** Lurreko Gailurrean landutako gai nagusiez aritu, datu jakinak, prentsatik lorturikoak, identifikatu eta aztertu.

**Orientazioak:** (5) jardueran prentsatik jasotako datuak ondoko gaiekin lotzea lortu nahi da: txirotasuna, ura, energiak, ingurumena eta biodibertsitatea. Garrantzitsua da datuen interpretazioa eta elkarrekiko duten harremana erraztea, esaterako: nazioarteko merkataritzak, ura eta energia eskura izateak eta Iparraldeko eta Hegoaldeko herrialdeen kontsumoaren arteko ezberdintasunak txirotasunarekin dute zerikusia. Zentzu honetan, gai bakoitzaren osagarri diren galderak egin ditzakegu: zergatik galtzen ditugu basoak?, zergatik desagertzen dira animaliak eta landareak?, nondik datoz gas kutsakorrak eta zeintzuk dira sortzen dituzten arazoak?, zergatik herrialde aberatsen eta txiroen arteko merkataritza bidegabekoa da?, zeintzuk dira bidegabekeria honek dituen ondorioak herrialde txiroetako biztanleentzako?...

Modu berean, gai jakinen bati buruzko informazio gehiago bilatu dezakezue. Gero, garapen jasangarriaren kontzeptua aztertuko dugu: (6) aldizkarian informazio testu bat ageri da.

### 3. jarduera:

#### Erabakiak eta desadostasunak

**Helburua:** Lurreko Gailurrean eginko akordio batzuk eta horiek piztutako erreakzioak aztertu; hain erabaki gutxi egotearen arazoari buruzko gogoeta.

**Orientazioak:** Gailurreko kritikak konpromiso eta lorpenen gabeziatik identifikatzeaz gain, garrantzitsua litzateke bilerako hainbat eragileren eragina azpimarratzea: buruzagi mundialak, multinazionalak, GKEak, e.a. Argazkiari lotuta, informazioa osatu daiteke EEBBen jarrera azalduz Kyotoko protokoloari eta ingurumen gaiei dagokionez. Gero, gela taldeka banatu informazioa irakurri eta hartutako hainbat erabaki aztertzeko, gabetasunak eta zehaztasun gabeziak aurkitzen saiatuz. (9) jardueran, dauden interes ekonomiko eta politikoei buruzko gogoeta egitea lortu nahi da.

### 4. jarduera

#### Eta guk, zer egin dezakegu?

**Helburua:** planetaren suntsipenarekin loturiko banakako zein taldekako erantzukizunei buruzko gogoeta sustatu; egun dugun egoera eteten lagun dezaketen ekintzei buruzko ideiak trukatu.

**Orientazioak:** (10) Behin testua irakurrita, gela talde txikitik banatuko dugu ideien ekarpena errazteko. Taldeei sentsibilizazio ekintzen (familian, auzoan, e.a.), salaketa ekintzen (auzoan agente kutsakorrak egongo balira, esaterako) edo presio ekintzen (Gobernuei gutunak idatzi, Nazio Batuak, e.a.) proposamena iradoki diezaiekegu. Jarduera honetarako beste iradokizun bat sormen euskarriak erabiltzea litzateke: abestiak, kartelak, pankartak, antzerkia, e.a.

# Gehiago jakiteko... Gehiago jakiteko...

## Zinea:

### El síndrome de China

James Bridges  
1978

## Liburuak:

### Cambio climático

J.E. Llebot  
Rubes argitaletxea, 1988

### Por una nueva educación ambiental

Ekologi eta Garapen Fundazioa  
Obra Social Caja Madrid Arg., 2002

### Local y sostenible: la agenda 21 local en España

Núria Font eta Joan Subirats (ed.)  
Icaria Arg., 2000

## Web orriak Web orriak

### Ingurumen eta garapen jasangarriari buruz (gaztelaniaz)

[www.habitat.aq.upm.es](http://www.habitat.aq.upm.es)  
[www.un.org/spanish/conferences/wssd/](http://www.un.org/spanish/conferences/wssd/)  
[www.worldsummit.org.za](http://www.worldsummit.org.za)  
[www.ecoterra.org](http://www.ecoterra.org)  
[www.infoagro.net](http://www.infoagro.net)  
[www.fao.org](http://www.fao.org)  
[www.wwf.es](http://www.wwf.es)  
[www.greenpeace.org](http://www.greenpeace.org)

### Ingelesez


[www.worldwatch.org](http://www.worldwatch.org)  
[www.ecouncil.ac.cr/](http://www.ecouncil.ac.cr/)  
[www.undp.org/](http://www.undp.org/)  
[www.unu.edu](http://www.unu.edu)

### Beste orrialde interesgarri batzuk

[www.geocities.com](http://www.geocities.com)  
[www.cec.lu](http://www.cec.lu)  
[www.fao.org](http://www.fao.org)  
[www.intermonoxfam.org](http://www.intermonoxfam.org)  
[www.oneworld.net](http://www.oneworld.net)

Gure web orrian sartu  
eta global express  
deskargatu!!

[www.IntermonOxfam.org/educar/global](http://www.IntermonOxfam.org/educar/global)



Global Express-ek komunikabideek diotenari buruzko galderak sortu nahi ditu ikasleen artean. Horretarako, munduko egoera eta, bereziki, garapenean den munduaren egoera ulertzen laguntzen dien errealitatearen ikuspegi kritikoa bultzatzen du.

Global Express honakoen ekimen bat da: Development Education Project (Erresuma Batua), Panos Institute (Erresuma Batua), Centrum voor Mondiaal Onderwijs (Holanda), Centro Educazione Mondialità (Italia) eta Intermón Oxfam (Espainia).

Global Express Europar Batasunak finantzatu du





# Global express

Gaurkotasuna ikasgelan

## Johannesburgo: gorde dezagun lurra... edo ez

1.



EPA, EL PAIS



1. Argazkia ikusi eta deskribatu

---

---

---

---

---

---

---

---

2. Nortzuk bildu ziren Lurreko Gailurrean eta zein helbururekin?

---

---

3. Ondoko komikia aztertu eta izenburua jarri

---


---

---

4. Zure ustez, zeintzuk dira lurrari eragiten dioten arazo nagusiak?

---

---



INTERMÓN OXFAM

# 2. Lurrak berehala behar ditu irtenbideak

Lurreko Gailurrean planetaren etorkizunerako funtsezkoak diren hainbat gai landu ziren.

5. Ondoko prentsa-albiste zatietan ondoko lau gaietara loturiko informazioa bilatu: pobrezia, ura, energia eta ingurumena/biodibertsitatea. Lortutako datu bakoitza bere zutabearen idatzi.

...Bushek iragarri zuen % 43an haziko duela, datozen 18 urteetan zehar, atmosfera kutsatzen duten gasen igorpena.

EDUARDO GALEANO: "SOS: TERRORISMO MEDIOAMBIENTAL", EL MUNDO, 2002/08/28

Merkataritza Johannesburgoko gairik erabakigarri eta korapilatsuenetariko bat da. (...) Herrialde aberatsek pobreak presionatzen dituzte euren merkatuak irekitzeko, euren ekonomiak muga-zergen eta diru-laguntzen bidez babesten dituzten bitartean.


IGNASI CARRERAS: "DE LA RETÓRICA A LA ACCIÓN", EL PAÍS, 2002/09/1

Diru-sarrera altuak dituzten herrialdeen biztanleen % 15 munduko kontsumo osoaren % 56aren erantzule da. Diru-sarrera baxuko herrialdeen biztanleen % 40k, aldiz, soilik kontsumoaren % 1 egiten du.

Planetako biztanle guztiok diru-sarrera gehien dituzten herrien ondasun eta baliabideen kontsumo maila berarekin biziko bagina, beste 2,6 planeta gehiago beharko genituzke behar guztiak ase ahal izateko.

\*ATAJAR LA POBREZA PARA SALVAR EL PLANETA", LA VANGUARDIA, 2002ko ABUZTUAREN 25a.

## Las claves de la cumbre



- El 40% de la población mundial consume de acceso a servicios modernos de energía.
- El 18% de la población mundial consume de agua potable y un 40% no cubre sus necesidades.
- QUÉ HACER:**
- Mejorar la eficiencia de la energía
  - Usar energía renovable y gas natural
  - Ratificar el protocolo de Kioto
  - Se priorizan inversiones en infraestructura
  - Transferencia de tecnología
  - Mejorar la gestión de recursos

\*ATAJAR LA POBREZA PARA SALVAR EL PLANETA", LA VANGUARDIA, 2002ko ABUZTUAREN 25a.

Basoak suntsitzen jarraitzen dira; urtero 17 milioi hektarea desagertzen dira, Suitzaren azalera lau bider (...). Urtero 6.000 espezie inguru suntsitzen dira.

IGNACIO RAMONET: "GORDE DEZAGUN LURRA", LE MONDE DIPLOMATIQUE, 2002ko ABUZTUA

Pobrezia	Ura	Energiak	Ingurumena eta biodibertsitatea

6. Zer esan nahi du "garapen jasagarria" kontzeptuak? Ikasgelan eztabaidatu.

# 3. Emaizak eta desadostasunak

7. Irakurri ondoko titularrak eta ikusi irudia:



CORDON PRESS

**Lurreko Gailurra amaitu zen konpromiso gutxiarekin eta GKEei kritika gogorra eginez.**

EL PAIS, 2002/09/05

**Lorpenik gabe amaitu da Lurreko Gailurra: herrialde pobreen frustrazioa**

LA JORNADA (MEXIKO), 2002/09/05

**GKEek munduko buruzagiei euren erretorikaren arabera ez jokatzeari leporatzen diete.**

Euren ustez, ingurumen eta pobrezia buruzko asmo oneko hitzaldiak ez zaizkio Ekintza Planean adostutakoari egokitzen.

LA VANGUARDIA, 2002/09/02

**GKEek Gailurrari leporatu diote konpainia multinazionalen interesen aurrean amore ematea.**

EL MUNDO, 2002/09/02

8. Zeintzuk dira Lurreko Gailurrari egiten zaizkion kritikak?

---

---

---

9. Ondoren, lorturiko akordioetariko batzuk dituzu. Taldeka, bakoitzaren alde onak eta txarrak eztabaidatu.

#### **Nazioarteko merkataritza**

Herrialde aberatsek beren ekoizkinen diru-laguntzak murrizteko nahia adierazi zuten, herrialde pobreak merkatuan lehiatu daitezten.

#### **Energia**

Herrialdeek, euren borondatez, energia berriztagarriko iturri gehiago erabiliko dute. Ez dago akordiorik energiari ez duten bi mila milioi pertsona energiari hornitzeko.

#### **Ura**

2015. urterako, edateko urik eta saneamendu sarerik gabe bizi diren pertsonen kopurua erdira jaisteko ahaleginak egin.

#### **Lankidetzak**

Soilik 5 herrialde ari dira betetzen euren BPGaren %7 emateko konpromisoa, herrialde pobreen garapenari laguntzeko. Lurreko Gailurrean gainerako herrialdeei eskatu zitzaizkien adostutakoa betetzeko.

#### **Ingurumena**

2010erako mundu bertsitatearen galera murriztea adostu zen. Aipatu urtea baino lehen, ingurumena kaltetzen duten ekoizkin kimikoak murriztuko dira. Abian jarriko da gas kutsatzaileen igorpena arautzen duen Kyotoko protokoloa.

10. Argazkia eta aurreko orriko titularrak berriz ere ikusi, ondoko komikia behatu eta azter ezazu zeintzuk izan daitezkeen Johannesburgoko Gailurrean emaitza hobek ez lortzearen arrazoiak.

---

---

---

---

---



## 4. Eta guk, zer egin dezakegu?

11. Lurreko Gailurreko emaitzak oso onak izan ez diren arren, lana ez da amaitu. Gure planetako bitzta pertsona guztien baitan baitago.

11. Ondoren GKE bateko ordezkari baten iritzia duzu. Irakurri eta, ondoren, taldeka ondoko puntuak eztabaidatu:

“Zorionez, munduko gailur honek konponbideak badirela ere erakutsi digu, bizipen eta informazio ugari trukatu direlarik. Lurra hobe birbanatu eta ura modu egokiagoan erabili dezakegu... Ingurunea kaltetzen ez duen teknologiarik bada eta, era berean, badira lurra kutsatzen ez duten energia berriztagarriak. Bide bat ere adierazi du, hazkunde ekonomiko, sozial eta ingurumenari dagokionez arduratsua, giza eta lan eskubideekiko begirunea agertzen duena. Eta munduko arduradunek porrot egin badute, lurretik eta jendearengandik urrun bizi direlako, gu ezin gara geldirik egon. Taldeka, gure gobernuai eskatu behar diegu konpromisoak hartu eta berehala ekitea, bai bertatik bai mundu mailan. Baina, hiritar garen heinean ere, baditugu gure erantzukizunak. Kontsumo jasangarrirako arauak ezarri behar ditugu eta solidarioak izan behar dugu, gutxi batzuen ongizateak ez dezan jende asko baztertu”.

### Zer egin dezakegu?

- Ekintzak etxeetan
- Ekintzak ikastetxean eta auzoan
- Ekintzak herrialde mailan
- Ekintzak planeta mailan